

**“TESTAMENTU BARRIA” LIBURUAREN ARGITALPENA
AURKEZPENA**

Liburua argitara barritan, alkarrizketa ereduaz baliatuz, aurkezpen modukoa egitera natorkizue, begirunez, arduraz eta maitasunez eta gogotsu burutu dogun lana ezagutu dagizuen.

1. Zergaitik egin dozue itzulpen hau?

Aspalditik arduratuta gengoan Bilboko eleizbarrutian, gure Altarako Liburua eta Irakurgaiak Liburua eguneratu beharrean aurkitzen ziralako. Grafia bera ere eguneratu barik egoan, eta horrek askori eragozpen barri bat leporatzen eutsan, batez ere abade gazteei eta Liturgia ospakizunetan irakurle ziran askori. Altarako Liburua (1984) eta Irakurgaiak Liburua (1988) nahiko zaharkituta aurkitzen ziran. Premina larriaz jaubetuta, eleizbarrutiko abade eta laiko batzuk eskaera egin eutsoen Gotzainari eta baita gotzain kontseiluari ere: “Gaurkotuta behar doguz ebanjelioak”. Gotzainak “Euskal Baliabideak” taldea osotzen dogunoi emon euskun zeregina eta geure ardurapean geratu zan eginkizuna. Agindua betetzeko, guk “Jesu Kristoren Ebanjelioa” argitaratu genduan 2015ean, eta orain Testamentu Barria osorik eskeintzen deusuegu.

2. Nortzuk burutu dozue lana?

Juan Luis Goikoetxea Arrieta, adiskide eta senide dodanak eta neuk, Lontzo Zugazagak. Juan Luis euskaltzain urgazle do-

gu. Urte askoan euskera irakasle izana, Mendebalde Kultura Alkarteko kide, “Bostak bat” lantaldeko partaide modura euskerako hiztegegintzan jarduna (ADOREZ hiztegiak)..., eta neulontzo Zugazaga Martikorena, Bilboko Eleizbarrutian Euskera Zerbitzuko zuzendaria, eta Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteen Elkarteko (EIZIE) ohorezko bazkidea (Donostia, 2002). Neuk ere luzaroan ekin deutsat euskera irakasteari. Ia 50 urte daroat itzulpen munduan sartuta, Biblia, katekesia eta teologia gaietan berariaz.

3. Zer da oraingo honetan argitaratu dozuena?

Begira! Argitaratu barri dogun liburua “Testamentu Barria” da. Berton, Testamentu Barriko 27 liburuak/idatziak eskeintzen doguz, Jesu Kristoren Ebanjeliotik hasi eta Apokalipsia liburura arte. Oraingoan, gainera, “sarrerak” egin deutseguz idatzi guztiei, egilea nor dan, norentzat idatzi dauan eta idatzi bakotxean azaltzen diran gai eta irakatsi nagusiak zeintzuk diran adierazoz.

4. Bizkai euskerara (bizkaierara) egin dozue bertsinoa, ezta halan?


Bai. Bizkaian oraindino gehienek bizkaieraz berba egiten dabe, eta eurak kontuan izanda eskeintzen dogu bizkaieraz: jokabide hori gaur-gaurkoz ezinbestekotzat jotzen dogu kristau-mezua ondo ulertua eta eskuratua izan ahal daiten. Horretaz gain, Euskaltzaindiak emondako arauak aintzat hartuz idatzi dogu bertsino hau. Hori egiten dauan Testamentu Barri osoaren lehenengo argitalpena dogu bizkaieraz. Eta horrek ere gaurkotasuna emoten deutso gurean ditugun bertsinoen artean.

5. Zeintzuk dira bertsino honen oinarrizko kakoak edo giltzak?

Bertsino honen oinarrizko kakoa “baliokidetasun dinamikoa edo funtzionalaren” aukera egin izatean datza. Itzul-

pen munduan baliokidetasunaren eredu bi doguz nagusi: “formala” deitua (BF) eta “dinamikoa” deitua (BD). Guk argi daukagu itzulpen literala ez dana zuzenena eta egokiena. Horregaitik, geure egin dogu harako S. Jeronimok, itzultzaile gogoangarri eta eleizak danen artean gehien goratua eta aintzatetsia izan danak esandakoa: “*non verbum e verbo, sed sensum exprimere de sensu*”. Horixe da baliokidetasun dinamikoaren bidetik guk bilatu doguna. Bigarren mailan itzi dogu baliokidetasun formala. Izan bere, honek jatorrizko testua bera ahalik eta zehatzen berregin nahian “hitza hitzaren truke” onartzen dau itzulpen-prozedura modura, eta “egitura egituraren truke”. Ilusino hutsa da, ostera, pentsatzea itzulpenak mimetikoki berregin leikeala jatorrizko testua. Baliokidetasun dinamikoak, semantikoa ere deituak, askatasun handiagoz jokatzeko bidea emoten deusku. Beronen ardura nagusia zera da: esanahia edo mezua helduazotea irakurle eta entzuleari, behar dan moduan ulertu eta eskuratu dagian. Mezuaren jasotzaileak hartzen dau hemen garrantzia eta lehenetasuna.

Fideltasuna da, bai, itzulpenaren lehenengo legea. Baina fideltasunak aurpegi bi daukaz: bata jatorrizko testuari begira dago, eta bestea jasotzaileari begira. Baliokidetasun formalaren arabera itzulpenak jatorrizko testuari begiratzen deustso, ahalik eta doitasun zorrotzenaz berregiteko, nahiz eta hori gaurko irakurleak testua ondo ulertzeko kalterako izan. Baliokidetasun dinamikoa, ostera, irakurleari begira dago, mezua kontuan izan eta mezu hori irakurleak hartu eta bereganatu dagian bidea urratzen ahaleginduz. Aukera bat edo bestea egitearen arriskuak argi eta garbiak dira: lehenengoa imitatzailea da, eta ez dau behar beste itzultzen (ibilbidearen lehenengo zatian, testu hutsean gelditzen da, sarritan esanahia irakurleagana helduazotea lortu barik). Bigarrena eraldatzailea da, eta gehiegi itzultzearen arriskuan jausi daiteke, hartzaileari gauzak argi esan guran jatorrizko testuagazko fi-



deltasuna galtzeko arriskuan jarritz. Itzulpenean testuagazko eta hartzaileagazko fideltasuna jagon behar dira. Dana dala, guk bigarren honeri emon deutsagu lehentasuna, liturgia-ospakizunetan hartzaileak mezua, entzunaz beste barik, bereganatzea dalako garrantzitsuena.

6. Zuon bertsino honen oinarritzko erreferenteak, zeintzuk izan dozuez?

Gure bertsinoaren jatorritzko oinarrian 1994an eta 2004an argitaratu genduan “Elizen arteko Biblia” (EaB) izan dogu. Eta, beste alde batetik, hori Erromako Meza Liburura eta bertako irakurgaietara egokitzeko moldatu dogun testua.

EaBk baeukan helburu komunikatiboa. Eta helburu zehatz horrek eragin eutsan/euskun itzultzaile-taldeari jokera jakin bat hartzeko, BDren aukera eginez, hartzaileari edukia/mezua ahalik eta argien emoteko ardurari lehentasuna emonez. Honetara, legea ez zan “hitza hitzaren truke, edo egitura egituraren truke”, ezpada ze “hitzaren muina, egituraren muina”, ardatza eta arima emotea testuaren jasotzaileari. Helburu hori aintzat hartu, azpimarratu, areagotu eta nagusitu egin da Erromako Meza Libururako, ha itzulpena liturgiarako birmoldatu dogunean. Izan bere, ezinbestekoa zan horretara gertatzea, Biblia liturgian ez dalako eskritura, berba aldarrikatua baino, testu diskurtso edo esaldi bihurtua, bakar-bakarrik. Liturgian Biblia-testuak galdu egiten dau bere testuizatea, hitzeko aldarrikapen bihurtzeko. Behin entzuten da, eta ez dau betarik emoten atzera barriz entzuteko; bat-batean bereganatu behar dau entzuleak. Testu aldarrikatua belarrietara doa, eta ez daukagu begien aurrean, berrikusteko eta hausnartzeko. Testu idatzia, letra, espaziala da, egonkorra. Berba mintzatua, oster, aldibatekoa da, hurrenkerakoa eta iheskorra. Hitz aldarrikatuak bere soinuak irauten dauan beste dau irauten. Horrek esan gura dau bere-

halakoa izango dala ulertzea eta harrera, edo galdu egingo dala mezua inongo eta ezelako eraginik barik.

7. Ze baldintza eta ze ezaugarri izan behar ditu Biblia Liturgian aldarrikatzeak?

Gehienbat erreza, xumea eta zuzenekoa behar dau izan kristau-herriari aldarrikatzeako. Hemen jarraian aitatu eta azaltzen dodazan ezaugarriak behar ditu liturgian irakurri eta aldarrikatzen dan/dogun Biblia-testuak:

- *Irakurterreztasuna*: Ahozko komunikazioaren mugabako xehetasun eta bereizgarriak oso garrantzitsuak dira (etenaldiak, azpimarrak, alkarrizketaren eta kontakizunaren intonazioak, poesiako edo ereserki/himno taiuko pasarteen erritmoa, tarteak...). *Puntuazinoak* ere guk sarri uste dogun baino garrantzi handiagoa dauka; ohikoa baino hainbat ugariagoa beharko dau izan, irakurleak Jainkoaren Hitza herriaren aurrean taiuz eta ganoraz aldarrikatu dagian.
- *Ulerterreztasuna*: Honek baliokidetasun dinamiko-funtzionala aplikatzea dau eskatzen, bai esplizitazinoz, baita signifikaduaren argibideaz. Jatorrizko testuan behingoan ulertzekoa zan adierazpideak, holantxe izan beharko dau oihartzuna lortzen dauan testuinguru barrian ere.
- *Liturgiarako itzulpenak baztertu egin beharko dau biztegi gatxa edo goi-mailakoa*; eta alboratu egingo ditu ulermena, eta kasu honetan bat-bateko ulermena, larri oztopatzen daben esaldi luze eta korapilatsuak. Danok ondotxu dakigunez, esaldi labur eta xumez egindako testua errezagoa da irakurtzeko eta ulertzeko, esaldi luze eta korapilatsuz osotua baino.

- *Eta Liburu Santuetan sarri atal luze eta korapilatsuak dagozan ezkerro, ezinbestezko egiten da testu zattia desegitea, eta paragrafo luzea esaldi laburragoz eta xumeagoz berregitea.* Biblia-liburu askotan liturgiarako itzulpenak berregituratze-eginkizuna eskatzen dau, azaleko egitura formala sakon eraldatzea. San Pauloren epistoletan ikusi geinke esan barri dodanaren adibide argi ugari.

Horretaz gainera, euskera batuan idatzita dagozan jatorrizko testuetan (EaB eta Erromako Meza Liburua) hitz asko “polisemikoak” dira, hau da, esanahi ugarikoak. Kasu horreetan *grekozko oinarrizko testura* jo behar izan dogu, bizkaieraz sinonimo zuzena jarri ahal izateko. Azken baten, berariazko hartzaileari Biblia-testua ulergarriago eta eskuragarriago egiteko, hartzaileaganako gertukoago egiteko, badira itzulpen-prozedura praktikoa batzuk (nahiz eta beti ez diran “goitik” baimenduak eta onartuak izaten). Berton seinalatzen dodaz, adibidez: esplizitazio-printzipioa, esanahia argitzearen printzipioa, kontzentratua zabaltzearen printzipioa, zatitze-printzipioa eta erlazino-edo lotura-printzipioa.

8. Goian aitaturiko erreferenteak bakarrik (EaB eta Erromako Meza Liburua) izan dozuez aurrean, ala Testamentu Barriaren beste itzulpen batzuk ere kontuan izan dozuez?

Hainbeste orrialderen itzulpena egitean, behin baino gehiagotan sortu jakuz ezbaiak eta zalantzak. Horrelakoetan beste itzulpen batzuk ere kontsultatu doguz, aukerarik onena egin ahal izateko. Hona hemen zeintzuk:

- Nova Biblia Vulgata BIBLIORUM SACRORUM editio. Libreria Editrice Vaticana 1979.
- La Sagrada Biblia. Versión oficial de la C.E.E. Bac, Madrid 2010.

- La Biblia. Casa de la Biblia. PPC/Sígueme/Verbo Divino, 1992.
- La Biblia de Jerusalén. DDB, Bilbao 1967...
- Biblia del Peregrino. Mensajero, Bilbao 1993...
- La Bibbia in lingua corrente. LDC/ABU, Leumann (To) 1985...
- La Bible. Cerf, París 1986.
- The New American Bible. U.S.A. 1997.
- Euskal Biblia. Kerexeta. Bilbao 1976 eta 1993.
- Jesukristoren Berriona. Apaolaza. Ed. Montecasino Zamora. 1994.
- Irakurgai-Liburua I. II. Bilbao 1972.
- Irakurgaiak. Bilbao 1988 (Orain arte indarrean doguna).
- Iesus Christ gure Jaunaren Testamentu Berria. Leizarraga. Euskaltzaindia. Bilbo 1990.

Dana dala, ahalegin iraunkor eta biziak egin doguzala autortu arren, ziur gagoz gure itzulpenak akats eta hutsen batzuk izango ditutana. Horretara gertatzen da gizon-emakumeon lanetan. Gainera, ondotxu dakigu itzulpenik onenak ere ezin daukela inoiz agortu Liburu Santuetan eskeintzen jakun altxor hondorik bakoa.

9. Norentzat da “Testamentu Barria” liburu hau?

Abade eta erlijiosoentzat. Hitzaren ministerioan diharduenentzat: DOAED (Domekaren Ospakizuna Abaderik Ez Danean) domeketako ospakizunak zuzentzen dabezanak, Liturgiako Taldeak, Irakurleak, Katekistak, Monitoreak, Mobimentu Apostolikoak, Erlijino Irakasleak. Parrokietako Laguntzaileak eta Fededun guztiak, dan-danak diralako Jainkoaren Hitzaren entzule.

Eta gustatuko litzakigu euren bizitzaren zentzunaren bila diharduen persona arduratsu guztiakana be heldu daiten.

10. Non eta noiz erabili “Testamentu Barria”?

Liturgia ospakizunetan irakurriko da. Eta horrez gain, beste asko izan leitekez aukerak: otoitzaldiak, erretiroak, gogojardunak, Liturgia taldeak, Biblia taldeak, helduen katekesi taldeak, katekisten heziketa, sendotza prestaketa eta gazte pastoraltza, e.a. luzea.

Jaunaren Hitzagazko begirunez eta maitasunez, euskeraganako maitasun arduratsuz, Bilbo Eleizbarrutiaren zerbitzurako eta Bizkaia osoko euskaldunentzat burutu dogu obra hau. Askok gogoko eta onuragarri izango dozuelakoan.

Lontzo Zugazagak